

# Triatloia gero eta sendoago Gasteizen

**Guztira, hamabi klubetako 300 triatletak —federazio-lizentzia dutelarik— praktikatzen dute kirol hori. Gero eta kirolari gehiagok jarduten dute horretan, eta udal instalazio bikainak erabiltzen dituzte; besteak beste, Mendizorrotzeko 50 metroko igerilekua.**



Mendizorrotzeko igerilekua



Gasteizko Duatloia 2024

2019az geroztik, Ironman proba egiten da Gasteizen, baino hori icebergaren tontorra baino ez da, azken urteetan jende ugari zaletu baita kirol horretara. 2012an, Triatloiko Munduko finala egin zen Arabako hiriburuan. Chris McCormack australiarrek lortu zuen garaipena gizonezkoetan —Eneko Llanos arabarra izan zen txapeldunordea— eta Carolina Steffen suitzarra emakumezkoetan. Geroztik, “triatloi fenomeno” esponentzialki hazten joan da. Gaur egun, hamabi klubek osatzen dute Arabako federazioa, besteak beste, Arabako hiriburuan sortutakoek: Cafés Foronda Dida, Bulletbike, E-Tri, Bertakoak, CDA 42195, Triatlhlon Aloha, LEA La Blanca, Vibike, Maldan Gora eta Sua Singular (berriki sortua). Kirolarien eta teknikarien artean, 300 federatu dira —horien ehuneko 22 emakumeak—, zeinak hiriko kirol-instalazioetan banatzen baitira errutinak eta entrenamenduak egiteko.

Arabara, gainera, EAEko egutegiko bost proba jokatzeko dira, horietako bi hiriburuan: Gasteizko duatloia —orain arte lau edizio egin dira—, VI-Half triatloia, Gasteizko Ironmanaz gain. Hiriko ekitaldi hori espezialitatearen munduko onenak biltzen dituen nazioarteko hitzordu bihurtu da.

Denboraldia amaitu delarik, Arabako federazioak jai bat antolatu du datorren azaroaren 29rako, Foru plazan. Bertan, haurrak, eskolak, klubak, kirolariak, ofizialak, antolatzaileak eta laguntzaileak bilduko dira. Horretaz gain, aurtengo kanpainako onenak sarituko dira.



**Gonzalo Alcalde**  
(48 urte - Cafés Foronda Dida)

“Duela 12 urte hasi nintzen. Taldean entrenatzea da gehien gustatzen zaidana. Gasteizen abantaila handiak ditugu entrenatzeko. Igerileku bat dugu auzo bakoitzean, korrika egiteko parkeak. Hiri honetako kirola zoragarria da”.




**Haizea Baz**  
(26 urte - Arabatri)

“Lagun batek gonbidatu ninduen, eta bizikletarekin hasi nintzen. Igeriketarik nentorren. Mendizorrotzeko igerilekuan entrenatzea zoragarria da. Triatloia gomendatzen dut, aktibo mantentzeko eta taldea osatzeko modu bat delako. Niretzat beste familia bat dira”.



**Aitor Errarte**  
(26 urte - Arabatri)

"Pandemia iritsi zen eta esku-pilota utzi nuen. Korrika egiten nuen, bizikleta bat erosi nuen eta igeri egiten hasi nintzen. Triatloiak des-konektatzeko aukera ematen dit eta taldean egitea plus bat da".



**Mery Sillaurren**  
(51 urte - Cafés Foronda Dida)

"Duela 10 urte hasi nintzen. Moldakorra eta dibertigarria delako gustatzen zait triatloia. Gogoan dut TriVitoria, bi distantziak zituena. Jende gehiagok praktikatzeko pizgarria izan zen".

## Ruth Brito eta Urko Herrán, bi erreferente handi

**Ruth Brito** da Arabako hiriburuko erreferente nagusia. Lanzaroteko triatleta Gasteizen bizi da Llanosen bikotekidea denetik, eta profesional gisa duen esperientzia ezagutarazten jakin du; izan ere, emakumeentzako E-TRI Eskola zuzentzen du, eta, horri esker, mundu osoan barrena bidaiatu du, eta askoz gehiago baloratu ditu Gasteizko kirol instalazioak bere kirola egiteko eta entrenatzeko. "Gaur egun, Mendizorrotzeko igerilekuan entrenatzen jarraitzen dut, baita atletismo-pistan ere. Gizarte-etxeetan dagoen eskaintza ikaragarria da. Ez dut uste beste probintziarik dagoenik penintsula osoan antzeko kirol-aukera duenik. Oso eskertuta egon behar dugu Gasteizko Udalaren eskaintzagatik, ez bakarrik kirolaren arloan, baita hirugarren adinekoen edo kulturaren arloan ere", adierazi du kanariarrak.



Ruth Brito

Bestalde, Gasteizko Duatloiaeren lehen hiru edizioetako txapeldun **Urko Herrán** gasteiztarrak bere bizitzaren zati

bihurtu du kirola. "Futbolekin hasi nintzen, baina arazo asko nituen belaunetan, eta kirolak dibertsifikatzearen alde egin nuen: korrika egiteaz gain, bizikleta eta igeriketara. Gasteizko igerilekuetara maiz joaten naiz, batez ere Judimendi eta Mendizorrotzera, non astero entrenatzen dudana. Pribilegioa da", dio gasteiztarrak.



Urko Herrán

Biek ere "estilo osasungarri baten eta kirol-jardueraren" alde egiten dute, bizitzarako ezinbesteko jarraibide gisa. "Gasteizen, gure DNAREN parte da. Edonork egin dezake kirola, betiere bere beharren arabera", aitortu dute.

"Kirolaren hirian", diziplina guztietan erreferenteak izateak eta lehen mailako kirol-ekipamenduak aprobetxatzeak edozein modalitatetan murgiltzera eta lehen aldiz probatzera gonbidatzen gaituzte. Horren ondorioz, Estatuko eta nazioarteko txapeldun handiak izateaz harrotu gaitezke.

Informazio gehiago: [FAT-ATF - Federacion Alavesa de Triatlón - Arabako Triatloi Federazioa \(fealtri.org\)](http://FAT-ATF - Federacion Alavesa de Triatlón - Arabako Triatloi Federazioa (fealtri.org))